


# ARETXABALETAKO



**UDALAREN EGUNGO  
EGOERAREN DIAGNOSTIKOA**

**AURKIBIDEA****OINARRIZKO DATUAK..... 3**

Kokapen geografikoa eta biztanleen kopurua (2001)  
 Biztanleriaren egitura, adinaren arabera (2001)  
 Biztanleria, jatorriaren arabera (1996)  
 Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera (2001)  
 Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera (2001)

**EUSKARA ONDORENGOETARATZEA..... 7****Familia bidezko jarraipena**

Hizkuntza-bilakaeraren tipologia (2001)  
 Hizkuntza-bilakaeraren tipologia, adinaren arabera (2001)  
 Etxeko hizkuntzaren erabilera (2001)  
 Etxeko hizkuntzaren erabileraren tipologia (2001)  
 Udalerriko biztanleria, etxeko euskaldunen dentsitatearen arabera (1996)  
 Etxeko hizkuntza, euskaldunen dentsitatearen arabera (1996)

**Irakaskuntza**

Irakaskuntza ez-unibertsitarioaren ikastetxeak; sarea eta ikasleen kopurua, ereduak 2003-04  
 Hizkuntza Normalkuntzako programak  
 Irakaskuntza ez-unibertsitarioaren bilakaera (1983-84/2003-04)  
 Haur Hezkuntzaren bilakaera (1983-84/2003-04)  
 Irakaskuntza ez-unibertsitaria 2003-04, irakasmilaren arabera  
**Hizkuntza egoera Aretxabaletako hainbat eremu publikotan**

**Osasuna****Posta****Akademiak****Kirola****Musika-dantza****Ludoteka****Euskalduntze-alfabetatzea**

Euskaltegiak: sare-mota, ikasle kopurua (2001-02)  
 Euskaltegietak matrikulazioaren eta bermatrikulazioaren bilakaera (1986-87/2002-03)

**EUSKARAREN ERABILERA ..... 16****Administrazioa**

Udalbatzaren osaera: alderdi politikoen ordezkariak (2003ko maiatzaren 25eko hauteskunde ondoaren)  
 Euskara Zerbitzua  
 Udalaren erabilera-plana  
 Derrigortasun-indizea eta hizkuntza-eskakizunen betetze-maila

**Euskararen erabileraren kale neurketa.**

Emaiza Orokorrak.  
 Erabileraren bilakaera.  
 Adin taldekako emaitzak.  
 Adin taldekako erabileraren bilakaera.  
 Sexuaren arabeko emaitza.  
 Haurren presentziaren eragina.  
 Haurren eraginaren bilakaera erabileran.  
 Ondorio nagusiak.

**Euskararen aldeko taldeak:**

Loramendi Euskara Elkarteak,

**EHE.**

**Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak**  
**Udalaren web gune ofizialaren hizkuntza-egoera**

**Lan mundua**

**Biztanleria, lan sektorearen arabera (2001)**

**Establezimenduak, jarduera-adarren arabera (2002)**

**Erabilera-plana duten udaleko enpresak**

**EUSKARAREN ELIKADURA ..... 20**

**Komunikabideak**

**Aretxagazeta**

**Atxabalta Telebista**

**Euskara-aurrekontua (2002ko datuak) ..... 20**

**ONDORIOAK: indarguneak eta ahuleziak ..... 21**

**ONDORIO NAGUSIAK ..... 22**

**ERANSKINA: GLOSARIOA ..... 29**

## OINARRIZKO DATUAK

### Kokapen geografikoa eta biztanleen kopurua (2001)

**Biztanle-kopurua:** 6.184

**Eskualdea:** Debagoiena

**Lurraldea:** Gipuzkoa



Aretxabaleta Debagoiengan dago kokatuta. Eskualdea 8 udalerrik<sup>1</sup> osatzen dute. 2001eko datuen arabera Debagoiengan 62.010 lagun bizi dira. Udalerri handiena Arrasate da 23.118 biztanlerekin. Bergarak eta Oñatik ere 10.000 biztanletatik gora dituzte. Hauen ostean, Aretxabaleta da handiena. 6.184 biztanle ditu, eskualdeko ia ehuneko hamar (%9,97). Azken 20 urteotan (1981-2001) biztanle-kopuruak behera egin du eskualdean (-%7,64). Aretxabaletan ez da berdin gertatu, biztanleriak gora egin baitu (%2,95). Leintz-Gatzagarekin batera, eskualdean hogeitaz urtetan biztanletan gora egin duen herri bakarra da.

### Biztanleriaren egitura, adinaren arabera (2001)

	Guztira	Biztanleen dentsitatea	0-19	20-64	≥65
			%	%	%
Gipuzkoa	673.563	340,1	17,5	64,8	17,7
Debagoiena	62.010	178	17,3	64,8	17,9
<b>Aretxabaleta</b>	<b>6.184</b>	<b>212,5</b>	<b>18,3</b>	<b>66,7</b>	<b>15</b>

<sup>1</sup> Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate/Mondragón, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñati.


**Biztanleria, jatorriaren arabera (1996)**

	Guztira	Sedentarioak	Barne-migratzaileak	Etorkinak
Gipuzkoa	676.208	%52,29	%27,16	%20,55
Debagoiena	63.562	%58,35	%22,10	%19,54
Aretxabaleta	5.943	%53,04	%28,64	%18,32

### Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera (1981-2001)

Aretxabaletan, biztanleen ia bi heren (%65) euskaldunak dira. Elebidun hartzailleak, hau da, euskaraz ondo hitz egin ez arren ondo ulertzeko gaitasuna dutenak, %10,8 dira. Lau lagunetik bat (%24,2), berriz, erdaldun elebakarra da, hots, euskaraz ez du batere ulertzen ezta hitz egiten ere. Nabarmenezkoa da hogeai urteren buruan izan den hizkuntza-gaitasunaren bilakaera: 1981etik 2001era euskaldunen portzentajeak 13,2 puntu egin du gora eta elebidun hartzailleak 1,8 puntu. Erdaldun elebakarren portzentajeak, berriz, nabarmen egin du behera (-15,1 puntu).

#### Hizkuntza-gaitasuna (ARETXABALETA) Competencia lingüística (ARETXABALETA)




**Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera (2001)**

25 urtetik beherakoen artean hamar biztanletik bederatzi euskaldunak dira. Euskaldunak gehiago dira adin-tarte guztietan, baina 40 eta 50 urte bitartekoetan erdaldun elebakarrekin nahiko parekatu daude.


Euskaldunen portzentajeak izugarri egin du gora gazteetan azken hogeitaz urteotan. 1981ean gazteen erdia inguru zen euskalduna eta gaur egun, esan dugun bezala, hamar gaztetik bederatzi.

**Hizkuntza-gaitasuna 2001, adinaren arabera (ARETXABALETA)**  
**Competencia lingüística 2001, según la edad (ARETXABALETA)**

Adina / Edad



**Euskaldunen bilakaera 1981-2001, adinaren arabera (ARETXABALETA)**  
**Evolución de los euskaldunes 1981-2001, según la edad (ARETXABALETA)**



## EUSKARA ONDORENGOETARATZEA

### FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENA


#### Hizkuntza-bilakaeraren tipologia (2001)

Aretxabaletan biztanleriaren ia erdia euskaldun zaharra da (%46,63). Bigarren multzo handiena erdaldun zaharrek osatzen dute (%24,03). Euskaldun berriak %12,78 dira eta partzialki euskaldun berriak, berriz, %9,93.

Euskaldunak direnak bakarrik kontutan hartzen baditugu, euskaldun guztien artean hamarretik zazpi euskaldun zaharrak dira (%71,78); hamarretik bi, berriz, euskaldun berriak (%19,66) dira.

#### Hizkuntza-bilakaeraren tipologia 2001 (ARETXABALETA)

#### Tipología de movilidad lingüística 2001 (ARETXABALETA)






## Hizkuntza-bilakaeraren tipologia, adinaren arabera (2001)

Euskaldun zaharrek osatzen dute multzorik handiena adin-tarte guztietan. Euskaldun berriei dagokienez, portzentaje handienak 25 urtetik beherako gazteen artean ematen dira. Gazte hauen artean, hiru biztanletik bat euskaldun berria da. 35 urtetik gorakoen artean, hiru biztanletik bat erdaldun zaharra da.

### Hizkuntza-bilakaeraren tipologia 2001, adinaren arabera (ARETXABALETA) Tipología de movilidad lingüística 2001, según la edad (ARETXABALETA)



### Etxeko hizkuntzaren erabilera (2001)


Hurrengo taulan ikusiko dugunez, Aretxabaletan biztanleriaren multzo handienak etxean gaztelania bakarrik erabiltzen du (%44,81). Etxean euskara bakarrik erabiltzen dutenak %38,29 dira.

	Guztira	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Besterik
Biztanleria	5.863	2.245	973	2.627	18
Portzentajea	%100,00	%38,29	%16,60	%44,81	%0,31

### Etxeko hizkuntzaren erabileraren tipologia (2001)

Euskaldun zaharren artean, hamarretik zortzik euskara erabiltzen dute etxean (%79,2). Jatorrizko elebidunek bi hizkuntzak erabiltzen dituzte, hau da, gaztelania eta euskaraz hitz egiten dute etxean (%68,4). Euskaldun berrien artean oso gutxi dira nagusiki euskaraz hitz egiten dutenak (%5,1); aitzitik lau lagunetik hiruk gaztelaniaz egiten dute (%77,8). Partzialki euskaldun berrien eta erdaldunduen artean ez dute euskaraz soilik hitz egiten. Partzialki euskaldun berrien artean gaztelania erabiltzen dute bostetik lauk etxean (%80,7). Partzialki erdaldunduen artean, erdiak baino gehiagok (%56,5), euskara eta gaztelania, biak, erabiltzen dituzte.

#### Etxeko erabileraren tipologia 2001 (ARETXABALETA) Tipología de lengua de uso en casa 2001 (ARETXABALETA)



### Udalerriko biztanleria, etxeko euskaldunen dentsitatearen arabera (1996)


Hamar biztanletik lau (%39,54) etxeko euskaldunen dentsitatea %80tik gorakoa den familietan bizi dira. Hamarretik bi biztanle dentsitatea %60 eta %80 artean dagoen etxeetan bizi dira (%18,45). Etxeko euskaldunen dentsitatea %25etik beherakoa den etxeetan, berriz, biztanleriaren %17,91 bizi dira.

	Guztira	>80	60-80	45-59	25-44	<25
Biztanleria	5.685	2.248	1.049	714	656	1.018
Portzentajea	%100,00	%39,54	%18,45	%12,56	%11,54	%17,91

### Etxeko hizkuntza, euskaldunen dentsitatearen arabera (1996)

Etxeko euskaldunen dentsitatea %80tik gora duten familietan euskara erabiltzen dute (%85,72). Etxeko euskaldunen dentsitatea %60-80ra jaisten denean gehienbat euskara eta gaztelania, biak, erabiltzen dituzte (%44,14) eta, ondoren, gaztelania bakarrik (%34,32). Kasu horretan euskara soilik erabiltzen dutenak %21,45 dira. Etxeko euskaldunen dentsitatea %60tik jaisteaz bat, etxean ia ez da euskararik erabiltzen eta gaztelania da gehien erabiltzen den hizkuntza.

**Etxeko erabilera 1996, familiako euskaldunen dentsitatearen arabera (ARETXABALETA)**  
 Lengua de uso en casa 1996, según la densidad de euskaldunes en la familia (ARETXABALETA)



## IRAKASKUNTZA

### Irakaskuntza ez-unibertsitarioaren ikastetxeak; sarea eta ikasleen kopurua, ereduka (2003-04)

Aretxabaletan sei ikastetxe daude: hiru publiko eta hiru pribatu: Kurtzebarri LH, Kurtzebarri DBH, Arrasate-Aretxabaleta Institutua (Lanbide Heziketa), Pausoka hartzaindegia -0-3-, Sta. Rita Ikastetxea, eta Almen Ikastola

D eredia eredu bakarra da CPEI STA. RITA HIP ikastetxe pribatuan, Pausoka Hartzaindegian. Almen ikastolan D eredia eta murgiltze eredia dute. Ikastetxe publikoetan, berriz, A (Institutuan Goi mailako zikloetan 16 ikasle), murgiltze eredia eta D ereduak ematen dira. HH, LH, eta DBHko ikasle guztiak D eta murgiltze eredian matrikulatuta daude 2003-04 ikasturtean Aretxabaletan.

B eredia deitzen bazaio ere, ez da bere horretan "B" deitzen dena, "Murgiltze eredia" baizik, eta diferentea da "B" deitutakoarekin, izan ere murgiltze eredian irakaskuntza guztia euskaraz da, baina jatorri erdalduneko ikasleentzat metodologia aproposa prestatzen da, berezia, beraiei egokitu. Matrikulazioaren orduan funtzionatzen du izenak.

Taulan "B" eredupean, Kurtzebarri eskolan azaltzen diren kopuruak, zera adierazten du: Zenbat ikasle diren jatorri erdaldunekoak, hau da, ama hizkuntza erdara dutenak.

IKASTETXEA	SAREA	IKASLEAK	A	B	D
ARRASATE-ARETXABALETA INSTITUTUA	PUBLIKOA	155	%10,32	0	%89,67
CEP KURTZEBARRI LHI	PUBLIKOA	283	%0	%44,17	%55,83
IES KURTZEBARRI BHI	PUBLIKOA	135	%0	%41,48	%58,52
PUBLIKOA GUZTIRA		568	%0	%	%
PAUSOKA HAUR ESKOLA	PRIBATUA	74	%0	%0	%100
CPEI STA. RITA HIP	PRIBATUA	68	%0	%0	%100
ALMEN IKASTOLA	PRIBATUA	344	%0	%0	%100
PRIBATUA GUZTIRA		486	%0	%0	%100
<b>ARETXABALETA GUZTIRA</b>		<b>1.054</b>	<b>%0,00</b>	<b>%37,24</b>	<b>%62,76</b>

- Portzentaiak egokitu behar dira.

### Hizkuntza Normalkuntzako programak

CEP KURTZEBARRI LHI eta IES KURTZEBARRI BHI ikastetxeak Hizkuntza Normalkuntzako programetan murgildurik daude. Baita, Aretxabaleta-Arrasate Institutua, Pausoka Haur Eskola, Sta. Rita Ikastetxea eta Almen Ikastola ere. Ikastetxe publikoek, irakasle bana liberaturik dute astean zenbait ordutan. Baita Ikastetxe pribatuek ere.

CEP KURTZEBARRI LHI 9 ordu

IES KURTZEBARRI BHI 6 ordu


ARETXABALETA-ARRASATE INSTITUTUA. 5 ordu.

Pausoka Haur eskola, Sta Rita ikastetxea, eta Almen ikastola (Arizmendi kooperatibaren barne direnak) 3 ordu.

### Irakaskuntza ez-unibertsitarioaren bilakaera 1983-84/2003-04

Hezkuntzan hizkuntza-ereduak ezarri zirenean (1983-84) lau ereduak ematen ziren Aretxabaletan. X ereduak ikasturte horretan bakarrik eman zen. A ereduak 97-98 ikasturtean eman zen azken aldiz, Kurtzebarrin eta oraindik ere irauten du Institutuan (Goi mailako heziketa Zikloetan 25 ikasle); ordura arte gutxienez lau ikasletik bat eredu horretan matrikulatzen zen. Gaur egun, hamar ikasletik sei D ereduak eta lau B

#### Irakaskuntza ez-unibertsitarioa (ARETXABALETA) Enseñanza no universitaria (ARETXABALETA)




ereduan matrikulatu dira ( B ereduak ez, murgiltze ereduak deitutakoan baizik)

- Koadro hau egokitu beharra dago.

### Haur Hezkuntzaren bilakaera, 1983-84/2003-04

Hezkuntzan hizkuntza-ereduak ezarri zirenetik Haur Hezkuntzaren ez da A eredurik eman. D ereduak nagusi izan da hasieratik baina gorabehera desberdinak egon dira. 2003-04 ikasturtean, D ereduak lau ikasletik hiru matrikulatu dira (%72,78) eta beste bat (%27,22) B ereduak.

#### Haur Hezkuntza (ARETXABALETA) Educación Infantil (ARETXABALETA)



### **Irakaskuntza ez-unibertsitarioa 2003-04, irakasmilaren arabera**

D eredia nagusi da Aretxabaletan ematen diren hiru irakasmiletan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH). B eredian ere ikasle dexente matrikulatzen da: Haur Hezkuntzan lau ikasletik bat. Lehen Hezkuntzan eta DBHn bost ikasletik bik aukeratu dute B eredia.

## HIZKUNTZA EGOERA, ARETXABALETAKO HAINBAT EREMU PUBLIKOTAN.

### 1.- ARETXABALETAKO OSASUN ZENTROA

Lanpostua	Kopurua	Euskaraz
<b>Harrerako langilea</b>	<b>2</b>	<b>1</b>
<b>Erizaina</b>	<b>3</b>	<b>3*</b>
<b>Sendagilea</b>	<b>3</b>	<b>2</b>
<b>Pediatra</b>	<b>1</b>	-
<b>Matrona</b>	<b>1</b>	-
<b>Ginekologoa</b>	<b>4 txandaka</b>	-

\* Batek ulertu egiten du eta hitz egiteko ere gai bada, beraz hementxe sartu dugu.

- Medikuek bakarrik pasatzen dute kontsulta, hau da erizainik gabe.
- Pediatrak erizainarekin pasatzen du kontsulta.
- Matronak eta ginekologoak elkarrekin pasatzen dute kontsulta. Matrona falta denean, harreran dagoen langilearekin pasatzen du kontsulta, euskaraz ez dakienarekin.

### 2.- ARETXABALETAKO POSTA

Lanpostua	Kopurua	Euskaraz
<b>Bulegoko langilea</b>	<b>2</b>	-
<b>Banatzailleak</b>	<b>3</b>	-

### 3.- LEBER Akademia.

Lanpostua	Kopurua	Euskaraz
<b>Irakasleak</b>	<b>3</b>	<b>3</b>

**4.- LEIZARRA MUSIKA ESKOLA.**

Lanpostua	Kopurua	Euskaraz
Irakasleak	11*	10**

\* Momentu honetan 12 irakasle daude baina bat ekainean jubilatuko da eta bertan dagoen batek ordezkatu du

\*\* Irakasleetako bat euskaltegia dabil ikasten.

**5.- KIROLETXEA.**

	LANGILE KOPURUA	EUSKARA EZAGUTZA	ERABILERA
<b>KIROL-ETXEA</b>			
Zuzendaritza	1	4.H.E.	BAI
Harrera	2	2. HE. Batak eta euskalduna bestea	BAI
Sorosleak	2	Bata euskalduna eta erdalduna bestea	Batek bai eta besteak ez
<b>Kirol Jarduerak</b>			
Aerobik	1	Euskalduna	Saioak euskaraz eta gazteleraz ematen ditu
Mantentze Gimnasia, 3. adineko gimn. eta Atzegiko gimn.	1	Euskalduna	Euskaraz ere egiten badu ere gehienbat saioak gazteleraz ematen ditu
Igeriketa	2	Bata euskalduna eta erdalduna bestea	Saioak gazteleraz ematen dituzte
Karate	1	Erdalduna	Saioak gazteleraz ematen ditu
<b>ESKOLA KIROLA</b>			
Koordinatzaileak	2	Euskaldunak	BAI
Monitoreak	27 (Eskoriatzakoak barne)	Gehienak euskaldunak badira ere, tartean badaude euskara ez dakitenak	Gehienek euskaraz eta besteek gazteleraz
<b>KIROL ELKARTEAK</b>			
Futbol entrenatzaileak	9	Gehienak erdaldunak baina badira tartean euskaldunak ere.	(?) Ia dena gazteleraz egiten dela esango nuke
Pilota	1	Euskalduna	Dena euskaraz
Murrukixo mendi elkarte	?		(?) Ia dena euskaraz egiten dela esango nuke
Zaraia mendi elkarte	?		(?) Gehienbat gazteleraz egiten dutela somatzen dut
Arlutz xake taldea			(?) Gehienbat gazteleraz egiten dutela somatzen dut



**6.- LUDOTEKA.**

<b>Lanpostua</b>	<b>Kopurua</b>	<b>Euskaraz</b>
<b>Begiraleak</b>	<b>2</b>	<b>2</b>

**7.- DANTZA TALDEA.**

<b>Lanpostua</b>	<b>Kopurua</b>	<b>Euskaraz</b>
<b>Begirale-irakaslea</b>	<b>1</b>	<b>1</b>

**8.- PINTURA TALDEA.**

<b>Lanpostua</b>	<b>Kopurua</b>	<b>Euskaraz</b>
<b>Begirale-irakaslea</b>	<b>1</b>	<b>1</b>

## EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

### Euskaltegiak: sare-mota, ikasle-kopurua (2001-02)

HABEk emandako informazioaren arabera, Aretxabaletako ikasleak hiru euskaltegi desberdinetan matrikulatu ziren 2001-02 ikasturtean: Aretxabaletako Leintz Udal Euskaltegian, Arrasateko Udal Euskaltegian eta Erdu-AEK euskaltegian.

2001-02 ikasturtean Aretxabaletako 157 ikasle matrikulatu ziren euskaltegian.

Euskaltegiak 2001-2002 ikasturtea (Aretxabaleta)			
Euskaltegia	Mota	Sarea	Ikasleak
ERDU-AEK	Homologatua	AEK	26
ARRASATEko Udal Euskaltegia	Publikoa	Udal Euskaltegia	37
LEINTZ Udal Euskaltegia	Publikoa	Udal Euskaltegia	94
<b>Guztira</b>			<b>157</b>


Euskaltegiakotako matrikulazioaren eta bermatrikulazioaren bilakaera (1986-87/2002-03)

Euskalduntze-alfabetatzearen eta bermatrikulazioaren bilakaera, ikasmailaren arabera (Aretxabaleta)										
	Euskalduntze-alfabetatzea					Bermatrikulazioa				
	GUZTIRA	101-106	107-109	110-112	Alfa	GUZTIRA	101-106	107-109	110-112	Alfa
1986-87	92	90,22	0,00	0,00	9,78	50,00	49,40	0,00	0,00	55,56
1987-88	121	85,12	8,26	0,00	6,61	41,32	41,75	70,00	0,00	0,00
1988-89	148	77,03	16,89	0,00	6,08	41,22	44,74	24,00	0,00	44,44
1989-90	163	88,34	4,29	0,00	7,36	46,63	46,53	42,86	0,00	50,00
1990-91	182	88,46	2,75	0,00	8,79	37,36	41,61	0,00	0,00	6,25
1991-92	145	77,93	14,48	0,00	7,59	44,83	49,56	38,10	0,00	9,09
1992-93	144	81,94	9,72	0,00	8,33	30,56	28,81	57,14	0,00	16,67
1993-94	77	66,23	20,78	0,00	12,99	31,17	23,53	68,75	0,00	10,00
1994-95	73	60,27	12,33	4,11	23,29	52,05	54,55	44,44	66,67	47,06
1995-96	101	70,30	7,92	12,87	8,91	40,59	45,07	75,00	23,08	0,00
1996-97	100	68,00	27,00	5,00	0,00	33,00	22,06	55,56	60,00	0,00
1997-98	85	55,29	16,47	28,24	0,00	54,12	63,83	64,29	29,17	0,00
1998-99	177	58,19	5,65	8,47	27,68	38,98	58,25	50,00	26,67	0,00
1999-00	217	62,67	6,91	6,45	23,96	43,32	50,00	40,00	7,14	36,54
2000-01	177	70,62	4,52	22,03	2,82	39,55	31,20	50,00	58,97	80,00
2001-02	157	40,13	10,83	31,21	17,83					

Matrikulazioari dagokionez, gorabeherak nabari dira ikasturte desberdinetan, baina azken hiruzpalau ikasturteetan matrikulazioak gora egin du. Bermatrikulazioa kontutan hartzen badugu, berriz, hamar ikasletik hiru gutxienez bermatrikulatu dira urtero.

**Euskaltegiatako matriculazioaren eta bermatrikulazioaren bilakaera**  
**Evolución de la matriculación y la rematriculación de los euskaltegis**

**ARETXABALETA**








## EUSKARAREN ERABILERA

### ADMINISTRAZIOA

**Udalbatzaren osaera: alderdi politikoen ordezkariak (2003ko maiatzaren 25eko hauteskundeen ondoren)**

**Alkatea:** Arritxu Oñden Bergara (PNV/EA)

	Alderdia	Botoak	Botoen %	Zinegotziak	Euskaraz dakite
	EAJ-EA	1.298	42,73	6	5
	ARALAR	875	28,8	4	4
	PSE-EE (PSOE)	399	13,13	1	1
	EB/IU	235	7,74	1	1
	PP	231	7,6	1	-

Nolanahi ere Aretxa herri Plataforma, ilegalizazioaren ondoren kanpoan geratu zen. Hona hemen, plataformak hauteskunde horietan lortutako emaitzak:

	Aretxa Plataforma	642		Botoen arabera legozkiekeen zinegotziak: 2	2
--	-------------------	-----	--	--	---

Udalbatzarrak euskaraz egiten dira nagusiki. Aktak euskaraz jasotzen dira eta ondoren erdarara itzuli. Elebietan banatzen da akta zinegotzien artean.

Tokiko Batzarreko aktak euskaraz egiten dira nagusiki. Aktak euskaraz jasotzen dira eta ondoren erdarara itzuli. Elebietan banatzen da akta zinegotzien artean.

Batzordeak, euskara hutsez (Kultura, euskara, kirola) egiten dira eta erdaraz (Gizarte ongizatea, hirigintza, ogasuna). Azken batzorde horietan erdaraz egitearen arrazoiak desberdinak dira: Batzuetan langileak dira hizkuntza menperatzen ez dutenak, beste batzuetan, politikoak edo alderdien izenean datozen ordezkariak, eta beste batzuetan aldiz, nahiz eta bai langileak baita politikoak ere euskaraz jakin, erabiltzeko ohiturarik ez izatea da arrazoi nagusia.

Aktak, egiten diren kasuetan, euskaraz jasotzen dira eta kasu batzuetan, eta hala eskatu ondoren itzuli egiten dira.

### Euskara Zerbitzua

Euskara Zerbitzuan bi lagunek dihardute lanean: bata euskara teknikaria-itzultzailea eta bestea hizkuntza normalkuntzarako teknikaria.

HIZKUNTZA NORMALK.TEKNIKARIA  
EUSKARA TEKNIK.-ITZULTZAILEA

B T  
B

## Udalaren erabilera-plana

**Aurrekariak:** 1997ko abenduaren 16an onartu zuten bideragarritasun-txostena.

**Euskara Plana AEBEMETen arabera:** Udalean.

**Onarpena:** 2001eko urriaren 15ean aho batez onartua Osoko Bilkuran.

**Euskara Planaren eragin-esparrua:**

Euskarazko atalak eta atal mikroplandunak. Noizko izendatu diren euskarazko atalak: E2001 (euskarazko atala 2001. urtean).

ADMINISTRAZIO ATALA	SAILKAPENA	LANGILE KOPURUA
Idazkaritza	E2001	3
Kultura	E2001	3
Kirolak	E2001	1
Ongizatea	E2002	3
Kontuhartzaitza	E2002	2
Udaltzaingoa	M	3
Hirigintza	M	2

Guztira Euskara Planean sartuta: **17 langile.**

### Hizkuntza irizpideak/Jarraibideak:

Aretxabaletako Udalak apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan jasotako ondoko arlo hauetan euskararen erabilerrari buruzko hizkuntza-irizpideak onartu eta gauzatzeko konpromisoa hartzen du:

- *Lehen plangintzaldian dagokien derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez duten langileekiko hartuko diren erabakiak eta neurriak.*

- *Kontratazio-arloan hartuko diren neurriak, batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, udalak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntza-baldintzak berma daitezen.*

Ondorengo esparruetan euskararen erabilera zehaztuko da eta gauzatzeko neurriak izendatuko dira:

- *Administratuekin eta gainerako erakundeekin izaten diren ahozko zein idatzizko harremanetan*

- *Baita jendaurreko ekitaldietan, argitalpen-arloan, hizkuntza-paisaian eta dagozkion hizkuntza-helburuak betetzeko erakundeak ezartzen dituen gainerako jarduera esparruetan ere*

**Ordenantzak:** 1991ko ekainaren 27an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 1996ko uztailaren batekoan hari egindako zuzenketak.

**Euskara Planerako baliabideak:**Giza baliabideak:

Hizkuntza Normalkuntzarako teknikariak: Ane Lore Estala (euskara-teknikari eta itzultzaile) eta Amaia Axpe.

**Derrigortasun-indizea eta hizkuntza-eskakizunen betetze-maila**

2004ko urtarrilaren 14ko datuen arabera Udalaren derrigortasun-indizea %70,69koa da. Derrigortasun-data ezarritako langileen kopurua indizearen gaineretik dago (%86,11). Derrigortasun-data duten langileen artean %61,29ak egiaztatu dute hizkuntza-eskakizuna.

%70,69ko indize honi honako helburuak dagozkie:

Administratuari zerbitzua euskaraz eskaini beharko zaio bai ahoz, bai idatziz eta, horretarako, jendaurreko administrazio-atal elebidunak ezarriko dira. Era berean, administrazio-atal elebidunak jarriko dira gazteriarekin harreman zuzena eta ohikoa duten ataletan eta, pixkanaka, erakundeak erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak ere egingo dira gizarte-mailako administrazio-ataletarako.

Azaldutako helburuez gain, administrazio-atal elebidunak jarriko dira gizarte-izaerako ataletan eta, pixkanaka, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak egingo dira maila orokorreko administrazio-ataletan ere.

Gainera, administrazio-atal elebidunak jarriko dira izaera orokorreko ataletan, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean ezarritakoaren arabera.

Azkenik, pixkanaka euskarazko administrazio atalak jarriko dira, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean ezarritakoaren arabera.

Administrazio-atalen kopurua: 5

Lanpostu kopurua	Derrigortasunak		Egiaztatuak		Egiaztatu gabeak		Lanpostu hutsak		Adinagatik salbuetsita		-1		-2		-3	
	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
36	31	86,11	19	61,29	3	9,68	6	19,35	2	6,45	0	0	1	3,23	0	0

**EUSKARAREN ERABILERAREN KALE NEURKETA.****Emaiza orokorrak**

2003ko neurketa honetan jasotakoaren arabera, Aretxabaletan euskararen kale erabilera % 42,6 da; alegia, kalean neurtu ditugun 100 elkarrizketatik 43 dira euskaraz, eta gainerakoak gaztelaniaz (beste hizkuntzak ez ditugu kontuan hartu azterketa honetan).

Egindako neurketetan guztira 2.889 hiztuni<sup>1</sup> dagozkien datuak jaso dira, herriko biztanleriaren % 482 litzatekeena. Behatutako hiztun kopuru honek SEI Elkartek neurketaren emaitzen fidagarritasuna bermatzeko ezarritako gutxienekoa erraz gainditzen du eta, hortaz, neurketa honetan lortutako erabilera datuek oinarri sendoa dute laginaren tamainari dagokionean.

<b>Euskararen KALEKO ERABILERA (2003)</b>	<b>Euskararen EZAGUTZA (01)</b>
<b>% 42,6</b>	% 64,9
<b>Neurtutako hiztun kopurua</b>	Aretxabaletako hiztun kopurua (01)
<b>2.889</b> (herriarren % 48)	6.018

**Erabileraren bilakaera**

Herriko euskararen erabilera aztertzeko garaian erabileraren **bilakaerari erreparatzeak** garrantzia berezia du. Izan ere, **normalizazio mailan egindako ahaleginen ebaluaziorako informazio interesgarria eskainiko digu, eta ondorengo urteetako jokaerak aurreikusten ere lagunduko digu.**


Emaitzak alderatzeko 1990ean, 1991an, 1996an, 1998an eta 2000an Aretxabaletako Udaleko Euskara Zerbitzuak egindako neurketetara, eta SEI Elkartek 2001ean egindakora jo dugu. Neurketa hauetan erabilitako metodologia oraingo bera zen eta ibilbideetako kalerik gehienak zein neurketa ordutegiak bat datoz, eta hortaz, **erreferentzia gisa datuen konparaketa jaso dugu jarraian. Argi adierazi nahi dugu**, ondorengo urteetako datuak konparatu ahal izateko ere, funtsezkoa izango dela neurketak egiten direnean oraingo diseinu osoa errepikatzea.

Horrela, bada, Aretxabaletako 1990etik 2003rako erabileraren bilakaera jasotzen da ondorengo diagraman:

<sup>1</sup> *Hiztuna* diogunean 2 urtetik gorako biztanleriaz ari gara; hots, hitz egiteko gaitasuna 2 urtetik gorakoek dutela kontsideratu dugu.

<sup>2</sup> Aretxabaletak 6.018 biztanle ditu 2001eko erroldako datuen arabera. Kontuan hartzekoa da, dena den, kale neurketa batean zenbait hiztun behin baino gehiago neur daitezkeela, edota neurtutako hiztunen bat herrikoa ez izatea gerta daitezkeela.





Aretxabaletan, oro har, erabilerak bilakaera positiboa izan du 1990etik 2001era (hamaika urtetan 11 puntu igoaz). **Azken bi urteetan, ordea, erabilerak izan duen beheranzko joera nabarmenezkoa da;** bi urteren buruan 12 puntuko jaitsiera izan du erabilerak.

1990etik 1998ra bitarteko urteetan erabileraren bilakaera nahikoa egonkor mantendu da %42-44ren inguruan. 1998tik 2000ra igoera nabarmena gertatu zen, bi urtetan erabilerak 9 puntu igoz; 2001ean baiezta egin zen goranzko joera hori, baina igoeraren erritmoa nabarmen mantsotuz. Azken bi urteetan, ordea, beherakada nabarmena gertatu da Aretxabaletako erabileran, eta arretaz hartzeko datua da hori.


Beraz, berebiziko garrantzia izango du datozen urteetan modu konparagarri batean datuak jasotzen jarraitzeak, bilakaerak zertara egiten duen jakiteko.

## Adin taldekako emaitzak

Neurketako datuak adin taldeka bereizita jaso ditugu. Adin taldeak honela banatu ditugu:

↵	Haurrak:	2 urtetik 14 urte bitartekoak
↵	Gazteak:	15 urtetik 24 urte bitartekoak
↵	Helduak:	25 urtetik 64 urte bitartekoak
↵	Adinekoak:	65 urtetik gorakoak

Egindako neurketa guztiak batuta, honako hau da adin talde bakoitzean neurtutako euskararen erabilera:



Diagraman ageri moduan, **euskara gehien erabiltzen dutenak, 14 urte bitarteko haurrak eta gazteak dira (% 58)**, bi adin taldeak erabilera maila berarekin. **Gutxien** erabiltzen dutenak eta herriko erabileraren batez bestekoaren azpitik ageri direnak, berriz, **pertsona helduak eta adinekoak dira (% 32,9 eta % 32,6, hurrenez hurren)**, hauek ere erabilera maila parekoarekin. Erabilera maila, beraz, bi sailetan bereizita dagoela esan dezakegu: 25 urtera artekoak batetik, erabilera maila altuenarekin, eta 25 urtetik gorakoak bestetik, erabilera maila baxuagoarekin.


Urte askotan hezkuntza alorrean egindako ahaleginei esker **adin talde euskaldunenak haurrena eta gazteena dira ezagutzari dagokionez, eta neurketak adierazten digunez, baita kaleko erabileran ere.** Adin talde erdaldunena, aldiz, helduena dugu, eta baita adinekoena ere; urteak pasa ahala, adin talde hori zahar izatera igaro izana, eta adineko euskaldunenak, berriz, hiltzen joan izana izan liteke arrazoietako bat. Bestalde, kontuan izan behar dugu helduen eta adinekoen ezagutza mailan ez dagoela alde handirik, % 60 eta % 56, hurrenez hurren.

Herriko euskararen bilakaerari begira adin taldeka jasotako datuetan bada itxaropentsu izateko arrazoirik. Izan ere, **herriko adin talderik gazteenak dira kalean euskararik gehien egiten dutenak eta gazteen erabilera herriko batez bestekoaren gaintik dago.** Joera hau datozen urteetan mantenduz gero, Aretxabaletako errealitatea gero eta euskaldunago izateko bidean da. **Azpimarratzekoa da, zentzu honetan, gazteen erabilera.** Gaur egun herri askotan gazteen erabilera batez bestekoaren azpitik dago eta ezagutzan aurrera eginagatik, gazteen artean gaztelaniaz egiteko joera nabarmena da. Jasotako datuen arabera, hau ez da gaur egun gertatzen Aretxabaletan. **Herriko hizkuntza bilakaerak oraingo norabidean jarrai dezan funtsezkoa izango da datozen urteetan gazteen erabilera ohiturek egungo joerari jarraitzea.** Dena dela, erabileraren bilakaerak emango digu datu kezkarriagoen berri ere; azter dezagun bilakaera hori, jarraian.

## Adin taldekako erabileraren bilakaera

**Herri batean euskararen erabilera aztertzeko garaian erabileraren adin taldekako bilakaera bereziki garrantzitsua da.** Normalizazio mailan egindako ahaleginen ebaluaziorako datu zehatzagoak lor ditzakegu, eta neurri batean, ondorengo urteetako jokoerak ere aurreikusi.

Aurretik esan bezala, emaitzak alderatzeko 1990etik 2003ra Aretxabaletan egindako zazpi neurketetan jasotako datuak erabiliko ditugu; honek erabileraren bilakaeraren interpretazioa zehatzagoa izatea ahalbideratuko digu. Ondorengo diagramak erakusten digu bilakaera hori zein izan den:



**Haurrengan**, 90etik 96ra erabileraren bilakaera beheranzkoa izan zen; 96tik 2001era goranzko joera hartu zuen, erabilera % 76,5 izatera iritsiz. **Bi urteren buruan, haurren erabileran jaitsiera nabarmena** adierazten du diagramak, 18 puntuko jaitsiera, hain zuzen ere (% **58,2**). Kontuan hartzekoa da, azken eroldako datuei erreparatuta, haurren ezagutza ia lau puntutan jaitsi dela 96tik 2001era; horrek badu zerikusia haurren erabilera mailaren jaitsierarekin.

**Gazteengan eta helduengan 91tik 2000ra bitartean goranzko joera izan du erabilerak. helduen kasuan erabilera maila egonkor mantendu zen 2001ean ere. Gazteengan, aldiz, 2000ko neurketan, ordura arteko goranzko erritmoa nabarmen areagotu zen, 17 puntu igoz eta % 80ra helduz. 2001eko neurketan joera hau eten egin zen, gazteengan ia 20 puntuko jaitsiera gertatuz; 2003ko neurketan erabilera maila antzera mantentzen da, nahiz eta, apalki bada ere, **beheranzko joera** nabaritu. Bilakaerari begira datu **kezgarria da oso, azken urteetako igoera eten eta joera aldaketa hori baieztatzen duelako.****

Gazteen artean, esan behar da 2000ko neurketan jasotako datua oso altua zela aurreko urtekoekiko, eta 2001ean, atzera, 98koaren antzeko erabilera jaso zen. **2003ko neurketa honetan, ordea, ez da goranzko joerarik somatu, kontrakoa baizik: apalki bada ere, erabilerak beherantz egin du (3 puntu).** Datozen urteetan horren jarraipena egiteak garrantzia izango du; gazteen erabilerak zer joera izaten jarraitzen duen gertutik jarraitu beharko da.


**Adinekoetan**, azkenik, 90etik 2000ra bilakaera negatiboa izan zen: 17 puntuko jaitsiera gertatu zen hamar urteren buruan. 2000tik 2001era, ordea, adinekoengan neurtutako erabilerak gora egin zuen nabarmen. 2003an, **adinekoen erabilera maila izugarri jaitsi da 2001etik (25 puntu),** eta 2000. urteko erabilera maila baino dezente baxuagoa jaso da gainera. 2001eko datua salbuespen modura hartuta, beraz, (datuak

haustura garbia erakusten zuelako), aurreko urteetako joerarekiko, erabileraren beheranzko abiadura bizkortu egin dela esan liteke. Aurrera begira, datozen urteetan joera berdinak jarraitzen ote duen ikusi beharko da.

Laburtuz, beraz, hamahiru urteotako bilakaerari erreparatuta, **nabarmena da 2003ko neurketan erabilerak beherantz egin duela adin-talde guztietan**. Jaitsiera nabarmenena adinekoengan eta haurrengan gertatu da; gazteengan eta heldueengan, berriz, jaitsiera ez da hain handia izan. **Gazteengan eta haurrengan, ordea, erabilerak goranzko joerarik ez hartzea datu kezagarria da euskararen ikuspegitik**; aurrera begira hurbiletik jarraitu beharko da joera hauen bilakaera.

### Sexuaren arabeko emaitza


Normalean, hiztunaren sexuak, hau da, hiztuna emakumezkoa edo gizonezkoa izateak ez du eragin nabarmenik euskara erabiltzerakoan. Aretxabaletan jasotako datuen arabera ere, **sexuaren eragina ez da nabarmena erabileran**. Esan liteke **gizonezkoek joera handixeagoa dutela euskaraz hitz egiteko emakumezkoek baino** (3 puntu gehiago dituzte), baina, esan bezala, aldea ez da nabarmenezkoa.



Aurreko urteetako neurketekin alderatzea interesgarria izan liteke, joera nagusia zein den ezagutu dezagun.


## Haurren presentziaren eragina

Haurren presentziaren aldagaia ere biziki interesgarria zaigu, **kasu askotan euskararen erabileran eragin nabarmena baitu**. Hainbat neurketatan (beste herrietan, Euskal Herri mailan...) ikus daiteke nola haurrak tartean egotean euskararen erabilera nabarmen igotzen den. **Datuek adierazten dute arau orokor hau Aretxabaletan ere betetzen dela**. Ikus dezagun ondorengo diagraman, haurrak egon ala ez, zenbatekoa den aldea:



**Haurrak present daudenean erabilera % 55,3 jaso dugun bitartean, haurrik ez denean ia 20 puntutan jaitsi da erabilera (% 37,1)**. Nabarmen beraz. Ondorioz, haurrik ez egotetik egotera dagoen hazkundea **% 49,13 da**. Esan bezala, hortaz, **Aretxabaletako kaleetan elkarrizketa batean haurrak tartean egotearen aldagaiak eragin nabarmena du elkarrizketa euskaraz edo erdaraz izateko**.

Haurren presentziak zein eragin duen jakiteaz gain, interesgarria zaigu erabilera edo komunikazio hori zehazki zeintzuen artean ematen den jakitea. Hori azaltzen digu ondorengo diagramak:




<sup>3</sup> Indize hau, haurren presentziaren eragina erakusten duena, kasu honetan honela ateratu dugu:  $(55,3-37,1)/37,1 \cdot 100$

Honenbestez, **erabilerak nabarmen egiten du gora haurrak mintzakide direnean:** alegia, haurrak beraien artean hitz egiten dutenean (% 60,3) eta bereziki nagusiekin harremantzen direnean (% 73,2). Haurrak presente egonik nagusien arteko elkarrizketetan erabilera ia erdira jaisten da (% 35,9); ondorioz, **erabilerak gora egiten du hurrek zuzenean elkarrizketan parte hartzen dutenean, eta ez hainbeste beraien presentziatik soilik.**

Beraz, nagusiek zuzenean hurrekin hitz egiterakoan erabilerak % 103,9an egiten du gora<sup>4</sup>. Hau litzateke haurren presentziaren aldagaiaren dimentsioa, alegia: **haurren arteko erabilera altua izanik, nagusiak beraiengana zuzentzen direnean, hauen erabilerak gora egiten du nabarmen. Beraz, badago nolabaiteko ohitura hurrekin euskaraz gehiago egiteko.**

Gainerakoan, **haurrak present egoteak ez du eragiten nagusien** (gazte, heldu eta adinekoen) **erabilera igotzerik; nagusien arteko elkarrizketak euskaraz edo gaztelaniaz izan daitezen haurren presentziak ez du eraginik.**

### Haurren eraginaren bilakaera erabileran



Haurren eraginaren indizea zenbatekoa izan den erakusten digu grafikoak, 2001eko eta 2003ko neurketetan. Argi geratzen da **bi neurketetan haurren presentziak eragin nabarmena izan duela**. Erabilera jaitsi egin da 2003an, bai

<sup>4</sup> Indize hau modu honetara atera dugu:  $(73,2-35,9) / 35,9 * 100$  eginez.

haurrak presente izatean eta baita haurrak aurrean ez izatean ere; jaitsiera, ordea, nabarmenagoa izan da haurrak presente ziren kasuetan (ia 10 puntu jaitsi da);

haurrik aurrean ez zenean, erabilera nahiko egonkor mantendu da (1,8 puntu jaitsiaz). Badirudi, beraz, haurren presentziak eragina izaten jarraitzen duela, baina **haurrak aurrean izatearen eragina apalagoa dela 2003ko neurketa honetan**. Aurrera begira, aldagai honen eragina zenbatekoa den aztertzen jarraitzea interesgarria izango da.



Ondorioak.

## ONDORIO NAGUSIAK (I)

- 
- 
- 
- **Erabilera indizea** % 43 da. 2001etik 2003ra beheranzko izan du erabilerak; 12 puntu jaitsi da.
- **Zonaldeka:** Ostiral gauetako giroa (%59) euskaldunagoa da, herriko batez bestekoa baino; baita futbol-zelaikoa eta ludoteka irteerakoa ere. Azokakoa, ordea, erdaldunagoa (

### **Bilakaerak:**

- ✓ Ostiral gauetako giroan, egonkor mantendu da erabilera 2001etik 2003ra.
- ✓ Azokan erabilera baxuagoa izan da 2001ean eta 2003an. 2001ean, ordea, alde nabarmenagoa zen azokako eta erdialdeko datuen artean.

# ONDORIO NAGUSIAK (II)

- **Adin-taldeka:** haurrak eta gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (% 58). Gutxien erabiltzen dutenak, berriz, helduak eta adinekoak (% 33).
- **Bilakaera (1990-2003):** 2003ko neurketan erabilerak behera adin-talde guztietan:
  - ✓ Haurren erabilerak 96tik zeraman goranzko bilakaera eten egin da 2003an; jaitsiera nabarmena (18 p.).
  - ✓ Gazteengan, 2000ra arteko igoera eten, eta joera aldaketa. Kezkagarria; azken urtetan erabilera behera.
  - ✓ Helduengan ere azken urteetako egonkortasuna eten.
  - ✓ Adinekoen erabileraren beheranzko abiadura bizkortu egin da; 2001ekoa salbuespena.

# ONDORIO NAGUSIAK (III)

4) **Sexua:** ez du eragin adierazgarririk erabileran. 2001eko neurketan ere joera antzekoa (aldea handixeagoa).

5) **Haurren presentzia:** eragile garrantzitsua, haurrak presente izanik erabilera hazi egiten baita. 2003an aldagaiaren eragina apalagoa izan da 2001ean baino.

✓ Hurrek mintzakide direnean, erabilerak nabarmen gora; bai nagusiekin harremantzean (%73) bai beraien artean hitz egitean (%60).

✓ Haurraren presentzia soilak ez du eraginik nagusien erabileran.

# ONDORIO NAGUSIAK (IV)

**6) Espero zitekeen erabilera** (% 34) kale neurketak jasotzen duen erabilera errealak baino baxuagoa (% 43).

- ✓ Eskoriatzan antzeko joera; ez ordea, Arrasaten eta Aramaion.

## HERRIKO EUSKARA ELKARTEAK.

### Loramendi Euskara Elkartea.

Izena: Loramendi euskara elkarte.

Helbidea: Udaletxe zaharra

Durana 11

Aretxabaleta GIPUZKOA

Telefonoa: 943- 770970

Helbide elektronikoa: Loramendi @ topagunea.jalgi.com

Kontaktua: Eneritz Urrutia

Sortze eguna: Loramendi bezala 1993.urtean.

Bazkideetza: Gaur egun 390 bazkide gara eta urteko kuota 3600pezetatakoa da.

Arrasate herrian sortutako euskara elkartearen pausuak jarraituz, Atxabaltan ere euskara elkarte bat sortzea erabaki zen. Honela Loramendi ikastolaren sortzaileetako batzuk eta herriko beste hainbat pertsona elkartu ziren 1987an Beinke kultur elkarte sortuz.

Hasieran euskara elkarte guztiak bezala, kultura bidetik jo bagenuen ere denborarekin, hainbat azpitalde sortu ziren. Salaketa-txaloketa taldea, gerora sentsibilizazio taldea izatera pasako zena, ekintza taldea, gerora kultur arloa jorratuko zuena, haurren talde bat, denborarekin Ortzadar aisialdi taldean bilakatuko zena eta baita euskaldun berrien taldea, Berri- Zahar deitua eta Tril emakume taldea.

1993.urteko maiatzean Loramendi ikastola publiko izatera pasatu zenean, bertako ondasunekin zer egin eztabaidatu zen. Batzar orokor batean euskararen normalizazioaren alde lanean zebilen taldeei uztea erabaki zen. Honela urte horretan bertan Loramendi ikastola eta Beinke kultur elkarteak bat egin genuen Loramendi euskara elkarte eratuz.

Normalizazio lan hori aurrera eramateko esparru desberdinak jorratzen ditugu:

- Berbari hitzarmena gizarte sektoreen euskalduntzea helburu duelarik ( merkataritza, talde eta elkarteak )
- Ludoteka, haurren euskalduntzean eragingo duena.

Gaur egun, Udaletxe zaharrean gaude Atxabaltako aldizkariarekin ( Aretxagazeta) eta laster martxan jarriko den telebistarekin. Orain dela hilabete lokala aldatu genuen eta horrekin batera herriarentzako baliagarria izango den lokal sozial bat jarri dugu martxan. Lan ugari egin dugu lokal hori egokitzen eta lanak bere fruituak eman dituela uste dugu. Hemendik aurrera lokal horretan hitzaldiak, ikastaroak, batzarrak, erakusketak, eta emanaldi desberdinak antolatuko ditugu. Nola ez, Kultur Errotako ekintzak ere bertan egingo dira.

Aurrerantzean, orain arte landutako alor guztiak jorratzen jarraituko dugu eta proiektu berriak ere baditugu lantzeko.

## EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Orain dela lau urte inguru sortu zen Aretxabaletan EHE taldea. EHEren helburuak atal hauen arabera sailkatzen dira: ofizialtasuna, euskara ezagutzeko eskubideak, administrazioa, komunikabideak, normalizazio planak eta erasoei erantzutea. Azken finean, helburu nagusia zera da: euskaraz biziko den herria, hiztun eleanitzez osatua.

Euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzeko ezinbesteko neurriak hartzeko eskatzen dugu. Honekin batera, euskaldunok gure eskubideak babesturik ikusi nahi eta behar ditugu.

Helburu hauek lortzeko herrietan lan egin behar izaten dugu, eta gure jarduna horretara bideratzen da. Ekimen ezberdinak egin ditugu: kontzentrazioak, giza kateak, manifestazioak, eragileekin bilerak eta bestelako ekintza ezberdinak.

## INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIAK

### Udalaren web gune ofizialaren hizkuntza-egoera

Aretxabaletako Udalaren web gune ofizialera sartzekoan menu guztiak euskaraz aurkitzen dira eta baita barnean dauden informazio guztiak ere. Lehenengo orrialdean kontsulta-hizkuntza gaztelania erabiltzeko aukera ematen du.



## LAN MUNDUA

### Biztanleria, lan-sektorearen arabera (2001)

Hamar biztanletik seik (%60,01) industrian egiten dute lan. Zerbitzuetan dihardutenak %35,03 dira; eraikuntzan, berriz, langileen %4,37ak egiten dute lan. Azkenik, nekazaritzan dihardutenak %0,59 dira. Aretxabaletan (Debagoienan bertan bezala) industrian dihardutenen portzentajea EAEko eta Gipuzkoako portzentajearen oso gainetik dago (30 puntu inguru).

	Guztira	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
EAE	862.407	1,78	27,48	8,67	62,08
Gipuzkoa	291.606	1,74	31,53	8,20	58,53
Debagoiena	28.777	0,83	54,24	5,22	39,72
<b>Aretxabaleta</b>	<b>3.043</b>	<b>0,59</b>	<b>60,01</b>	<b>4,37</b>	<b>35,03</b>

**Establezimenduak, jarduera-adarren arabera (2002)**

Guztira		Industria eta energia	Eraikuntza	Merkataritza, ostalaritza eta garraioak	Bankuak, aseguruak eta enpresa zerbitzuak	Bestelako zerbitzu jarduerak
<i>Kop.</i>	<i>Enplegua</i>	<i>Kop.</i>	<i>Kop.</i>	<i>Kop.</i>	<i>Kop.</i>	<i>Kop.</i>
384	2.952	70	52	140	52	70

**Erabilera-plana duten udalerriko enpresak**

Gaur egun, Aretxabaletan bi enpresa ari dira erabilera-plana garatzen: Copreci S. Koop. eta Fagor Sistemas S. Koop.

**Copreci S. Koop.**

Lan-jarduera: Etxetresnetarako osagaiak fabrikatu eta muntatzea.

Langile kopurua	Euskaldun kopurua	Eredua	Eragindako atalak	Eragindako langileak	Noiztik	Esleipena 2002
845	541	Ez dago (EX-22)	2	49	1999	3.472.000

**Fagor Sistemas S. Koop.**

Lan-jarduera: Makina edo gailu desberdinak edo hauen atalak muntatzeko irtenbide automatikoak eskaintzen ditu. Eskuzko lanak murriztu eta prozesuak automatizatzen espezializatutako enpresa da.

Langile kopurua	Euskaldun kopurua	Eredua	Eragindako atalak	Eragindako langileak	Noiztik	Esleipena 2002
89	51	E3(-1)	5	11	1997	2.003.092



## EUSKARAREN ELIKADURA

### KOMUNIKABIDEAK

Bailara mailan **Goienkaria** astekaria banatzen da. Ostiralero dohainik banatzen zaie horrela eskatzen duten guztiei. Aretxabaletan banatzen den edizioak Aretxabaletako asteko informazioa biltzen duen **Aretxagazeta** dakar beraren barnean. Zortzi orrialde dakartza Aretxabaletari buruz. 2004ko urtarrilean Goienkariaz gain, **Asteleheneko Goienkaria** hasi da publikatzen. Azken hau liburu- eta paper-dendatan eros daiteke 0,80 €tako prezioan edo bestela urteroko harpidetza egin daiteke (25 € urteko).

**Goitb** (Goiena Telebista) ere ikus daiteke Aretxabaletan. Bailarako albiste,... ematen dituen telebista honek astean zehar zazpi ordutako programazioa eskaintzen du eta aste bukaeratan hiru ordu eta erdikoa.

**Goiena.net** Interneteko portalea ere bisita dezake Aretxabaletako edonork, bai bere herriko, bai bailarako albisteak ezagutu nahi baditu.

Informazio guztia euskara hutsean ematen da, Goienkarian eta Goitb-en bezala.

### Aretxagazeta eta Atxabalta Telebista.

Herriko albisteen berri eman eta euskara bultzatzeko helburuarekin sortu zituzten bai Aretxagazeta aldizkaria, bai Atxabalta Telebista. Bai prentsa idatzian, bai telebistan euskaraz egiten zuten medioak oso gutxi zirela ikusita jarri zituzten abian biak. Herritarren artean sortu ziren ideia biak, eta Udalaren laguntza izan zuten beti.

Lehenengo aldizkaria etorri zen. Gainera, proiektu apala izatetik poliki-poliki garatzen joan zen, eta produktu txukuna kaleratzea lortu zuten desagertu aurreko urteetan. Udalaren, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak jasotzen zituen, eta gainerakoa herriko komertzioek jarritako publizitatearen bitartez eta bazkideek emandakoarekin betetzen zuten. Azken urtean, 2001ean, 450 bazkide zituen.

Telebistaren kasuan, inbertsio handitan sartu barik eta baliabide gutxirekin jarri zuten abian.

Hona historia laburra:

1989ko martxoaren 21ean kaleratu zuten Andarto Kolektiboa izena zeukan talde batek lehenengo zenbakia. Formatu handikoa izan zen, eta hiru hilabetekaria. 9 zenbaki argitaratu zituzten, 1991ko otsailean azkena.

Urtebete beranduago, 1992ko martxoan, Aretxagazeta Kultur Elkarteak sortu zuen herriko lagun talde batek, eta tamaina txikiko lehen Aretxagazeta kaleratu zuen. 12-20 orriko hamabostekaria zen.


- 1995eko urtarrilean tamaina handira pasatu zen aldizkaria eta orri kopurua gehitu zioten 20-24 izanik.
- 1997an kolorea sartu zioten azalean. Urrian, ostera, Interneten ikusgai jarri zuen Saretxo elkarteak. 29 zenbaki sartu zituzten, 130tik 159.era bitartekoak.

- 1998ko martxoan Aretxagazeta Kultur Elkartea desagertu egin zen, eta Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendi Elkartea sortu. Aldizkariaren beraren eta geroago abian jarri zuten Atxabalta Telebistaren ardura izan zuen honek.
- 1998ko abenduan lehenengo urtekaria kaleratu zuten. Urte guztian kaleratutako berri garrantzitsuenen laburpena 40 orritan. Abenduaren 24an, gainera, lan leku berria inauguratu zuten. Santa Kurtz 21ean zuen lokal txikia utzi, eta Udalak Durana 11ko bigarren solairuan hiru gela utzi zizkion: bata Aretxagazetarendako, eta beste biak (kontrol gela eta platoa) Atxabalta Telebistarendako.
- 1999ko otsailaren 12an jarri zuten abian Atxabalta Telebista. Astean bi egunetan, martitzen eta egubakoitzetan, emititzen zuen. Kazetari lanak egiten Amagoia Lasagabaster aretxabaletarra ibili zen, eta teknikari postuan Haritz Altube gatzagarra. Urtebetez, albistegiak eta Atxabalta Ezagutzen izeneko erreportajeak egin zituzten. Biak ere Aretxabaletako euskalkian aurkezten zituen Amagoiak.
- 1999ko ekainaren 4an, hauteskunde hurrengo egunean, udal hauteskundeen gaineko orri papera kaleratu zuen Aretxagazetak. Herriko datuak batu zituzten, eta alkate berriari elkarrizketa egin zioten. Herriko etxe guztietara banatu zuten.
- 2000. urteari itxura berriarekin eman zion hasiera aldizkariak. Azalaren eta barruko atalen diseinua aldatu zituzten, baita atal berriak sartu ere.
- 2000ko maiatzaren 5ean Atxabalta Telebistak azken albistegia eman zuen. Goiena proiektuan sartzera herri telebista desagertu eta eskualdeko telebista abian jartzeko erabakia hartu zuten.
- 2000ko ekainaren 27an Goiena Kooperatiba sortzeko sinadura ekitaldia egin zuten Bilbon. Ibarreko bederatzi herrietako euskara elkarten ordezkariak batu ziren bertan. Aretxabaletatik Josu Sarasua Loramendi Euskara Elkarteko lehendakaria eta Mireia Uribetxebarria Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendi Elkarteko batzordeko kidea joan ziren.
- 2001eko urriaren 11n kaleratu zuten aldizkari formatua izan zuen azken Aretxagazeta. 222. zenbakia izan zen. Urriaren 19an, Goienkaria aldizkariarekin batera hasi ziren kaleratzen. Astekaria izatera pasatu zen, egunkariaren formatua hartu zuen, eta ordutik Eskoriatzako Zebbarri aldizkariarekin batera ailegatzen da etxeetara.

## EUSKARA AURREKONTUA (2002ko datuak)

HPSk 2002ko 5.000 biztanle baino gehiago duten udalerrien euskara-aurrekontuen azterketa egin zuen. Azterketa horren arabera, Aretxabaletako Udalak euskara sustatzeko 276.040 € bideratu zituen, bere aurrekontuaren %3,61, hain zuzen ere.

Kontzeptuka aztertuz gero, euskara-aurrekontuaren zatirik handiena euskalduntze-alfabetatzean erabili zen (%27,3). Ondoren komunikabideetan (%22,7) eta elkarteei emandako diru-laguntzetan (%19) gastatu zen. Pertsonal-gastuetan %11,2 gastatu zen eta beste zenbait kontzeptutan geratzen zen aurrekontuaren %19,69.



## ONDORIOAK: indarguneak eta ahuleziak

### INDARGUNEAK


- ❑ Biztanleen ia bi heren (%65) euskaldunak dira.
- ❑ 20 urteren buruan euskaldunen portzentajeak 13,2 puntu egin du gora.
- ❑ 25 urtetik beherakoen artean hamar biztanletik bederatzi euskaldunak dira.
- ❑ Hamar gaztetik hiru euskaldun berriak dira.
- ❑ Euskaldun zaharrek (%46,63) euskara erabiltzen dute etxean (%79,2).
- ❑ Bertako ikastetxeak Hizkuntza Normalkuntza programetan murgilduta daude.
- ❑ HH,LH,eta DBHn euskara hutsean ikasten dute ikasle guztiek.
- ❑ Hainbat enpresa erabilera planak garatzen ari dira.
- ❑ Euskararen aurrekontua aurrekontu propioaren %3,61 da.
- ❑ Goienkaria astekaria, Goitb telebista, Goiena.net, eta Arrasate irratia: komunikabide euskaldunak.

### AHULEZIAK

- ❑ Lau lagunetik bat (%24,2) erdaldun elebakarra da.
- ❑ 35 urtetik gorakoen artean hiru lagunetik bat erdaldun zaharra da.
- ❑ Aretxabaletako biztanleriaren multzo handienak gaztelania erabiltzen du etxean (%44,81).
- ❑ Euskaldunen dentsitatea %60tik beherakoa den etxeetan (%42,01) ez da ia euskaraz hitz egiten.

## ONDORIO NAGUSIAK

Aretxabaleta Debagoienan dago. Debagoiena 8 udalerrik osatzen dute. Arrasate da biztanle gehien dituen herria. Aretxabaleta, berriz, laugarrena da biztanleak kontuan hartuta. Debagoiena ingurune euskalduna da: 2001eko datuen arabera hiru biztanletik bi (%65,68) euskaldunak dira. Debagoiena herri guztietan euskaldunen portzentajea %50 gainetik dago. Aretxabaletan ere, bailarako portzentajeen inguruan daude: hiru lagunetik bi euskaldunak dira (%65).



Biztanleen bilakaerari dagokionez, Debagoienak biztanleak galdu ditu (-%7,64). Aretxabaletan, berriz, biztanleek gora egin dute azken hogeitun urteotan (%2,95). Datu esanguratsua da, izan ere, EAEko hiru udalerritik bik galdu egin baitituzte biztanleak.

Bestalde, biztanleriaren egitura, adinaren arabera aztertuz gero, nabarmentzekoa da gazteen portzentajea EAEko batez bestekotik gora dagoela. Azken emaitza hau normala da, izan ere, konprobatuta dago gazteen batez bestekoa eta udalerrietako biztanleriaren hazkundera elkar loturik daudela; hau da, biztanleria irabazi duten udalerrietan gazteen portzentajea handiagoa da eta, alderantziz, biztanleak galdu dituztenetan gazteen portzentajea txikiagoa da. Gazteen portzentaje altu hori gure egitasmoetan eta helburuetan aintzat hartu beharko dugu.

Aretxabaletan, aurretik aipatu bezala, %65 euskaldunak dira eta ia lau lagunetik bat (%24,2) erdaldun elebakarra da. Gainontzekoak (%10,8) elebidun hartzaileak dira. Euskaldunak gehiago dira adin-tarte guztietan, baina 40 eta 50 urte bitartekoen artean erdaldun elebakarrekin nahiko parekaturik. Euskaldunen proportziorik handiena gazteen artean dago. 25 urtetik beherakoen artean hamar lagunetik bederatzia euskaldunak dira. Kontuan hartzeko datua dudarik gabe.

Hizkuntza-bilakaeraren tipologiari dagokionez, biztanleen ia erdia (%46,63) euskaldun zaharrak dira. Portzentajeen arabera, erdaldun zaharrek (%24,03) bigarren talde

handiena osatzen dute. Euskaldun berriak %12,78 dira eta partzialki euskaldun berriak %9,93. 25 urtetik beherakoen artean hiru biztanletik bat euskaldun berria da.

Aretxabaletan, eguneroko bizimoduan eta gizarteko zerbitzuetan euskaraz egiteko aukerak ziurtatu beharko litzaizkieke adin guztietako herritarrei. Ondoren, helburu estrategikoari jarraituz, esparruz esparru, udaletan EBPN garatzeko aurreikusitako helburuak eta neurriak aurreratuko ditugu.

### Euskararen ondorengoetaratzea

Aretxabaletako biztanleen ia bi heren euskaldunak izanik (%65), euskaldun zaharrak nagusi dira (%46,63). Hamar euskaldunetik zazpi euskaldun zaharrak dira. Hala ere, gazteen artean, euskaldun berrien portzentajeak gora egiten du nabarmen. Esan bezala, 25 urtetik beherakoen artean, batez beste, euskaldun berriak heren bat dira. Beraz, oraindik euskaldun gehienek euskara etxean jaso badute ere, gero eta gehiago dira giro erdaldunean hazi eta euskara eskolan jaso duten euskaldun gazteak, euskaldun berri gazteak, hain zuzen. Euskaldun berriak izanik, euskaraz jarduteko gaitasun osoa izan arren, etxeko giro erdalduna dute. Hortaz, aukera gutxi dute etxean euskaraz mintzatzeko.

Familiako guztiak edo ia guztiak (%80tik gora) euskaldunak direnean baino ez dute Aretxabaletako biztanleek nagusiki (%85,72) euskara erabiltzen etxean. Familiako euskaldunen dentsitatea txikiagoa denean, euskararen erabilerak nabarmen egiten du behera. Hamar biztanletik lau (%39,54), etxeko euskaldunen dentsitatea %80tik gora duten familietan bizi da eta gainontzekoak euskaldunen dentsitatea %80tik behera duten familietan bizi dira. Jakin badakigu ingurune soziolinguistikoak asko eragiten duela etxeko erabileran. Hona hemen familiaren geroratzearen inguruko esparruan proposatutako ekintza batzuk:

- Haurrentzako zerbitzuak kudeatzen dituztenekin hitzarmenak sinatzea euskararen erabilera egokia bermatzeko: Hitzarmenak sinatzea ez ezik, ekintzak bultzatzea eta baliabideak eskaintzea (Elkarlana)
- Haur guztiei zuzendutako zerbitzuak euskaraz, hizkuntzaren kalitatea oro har, eta euskalkia bereziki zainduz: ludotekak udalekuak, jolas parkeak...
- 0-2 urte bitarteko haurrei eskainitako irakaskuntza aukera ziurtatzea.
- Familia-hizkuntza euskara izan dadin eta kultur ondarea transmititzeko sentsibilizazio jarduerak.
- Familia osatu berri duten bikote erdaldunak euskalduntzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak. Bikote euskaldunen artean ere, sentsibilizatzeko eta hizkuntza ohiturak eta jarrerak aldatzeko jarduerak
- Euskaraz ez dakiten, eta dakiten zaintzaileekin ekimenen bat burutu: oinarrizko hiztegiak sortu, sentsibilizazio ikastaroak antolatu....

Aretxabaletako ikastetxe guztiak hizkuntza-normalkuntzako programetan murgilduta daude eta horretarako Hezkuntza Sailaren laguntza jasotzen dute. Euskaldun-kopuruaren gorakadan, hezkuntzak duen garrantziaz oharturik, eta ikasmaita guztietan D ereduaren nagusitasuna ikusirik, ona litzateke ikastetxeetan euskara ohiko hizkuntza-harremana izan dadin, neurriak sendotzea. Hona hemen irakaskuntzaren esparruan euskara indartzeko proposatzen ditugun zenbait ekintza:

- Hezkuntza Sailarekin harremanak, errotulazioa era egokian eta euskara hutsean izan dadin. Bera arduratu behar da

- Irakur zaletasuna bultzatzeko dauden ekimenen berri ematea eta horiek gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak edo laguntza eskaintzea. Irakur zaletasuna ez ezik, antzerkigintza, bertsogintza.... Irakur zaletasuna bultzatzeko herriko liburutegian ipuin-kontaktak antolatzea ikasleentzat, gurasoentzat, irakasleentzat....
- Irakasle eta ikasleen euskarazko gaitasuna hobetu eta euskarazko baliabide didaktikoak beraien esku jarri
- Ikastetxeetan euskararen normalkuntza planak indartzeko eta garatzeko laguntzak eskaintzea, lankidetzaren bidez. Ikastetxe bakoitza zertan dabilen eta bakoitzaren planak ezagutzeko eta ahal den neurrian herriko plangintzan uztartzea. Ikastetxeek antolatzen dituzten ekimenetan (euskararen eguna, kultur asteak, karnabalak....) herria ere partaide bihurtzea.
- "Euskara Zine Aretoetara" programan parte hartzea animatzea eta hori gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskaintzea (zine aretoa, sarrerak merkeagotzeko diru-laguntzak, esku-orriak prestatzea...) Baita antzerkia edota beste ikuskizun mota batzuk ere, bertan, Aretxabaletan eskaintzeko.
- Bekak, laguntzak eta abar ematea, unibertsitateko udako ikastaro eta antzekoetan euskarazko eskaintzen alde egin dutenentzat.

Euskara ikasi edo hobetu nahi duten helduentzat Leintz Udal Euskaltegia, Arrasateko Udal Euskaltegia eta Erdu-AEK euskaltegia daude. Matrikulazioaren bilakaerari dagokionez, gorabeherak izan dira, baina azken ikasturteetan nolabaiteko goranzko joera nabari da. Joera hori ez dator bat EAEn gertatzen ari den beherako bilakaerarekin, izan ere, irakaskuntzari esker, gero eta euskaldun gehiago egonik, euskaltegiak balizko bezeroen kopuruak behera egin du.

Euskara ikasten ari direnen artean, bestalde, komenigarria litzateke harreman-sare euskaldunak sustatzea, hots, euskaraz egiteko aukera estrukturalak bultzatzeko egitasmoak indartzea. Horretarako, ikasleei jarduera osagarriak eskaini dakizkieke ohiko eskolez aparte: euskara txokoak, mintza praktika egiteko guneak...

Euskalduntze-alfabetatzean eragiteko proposatzen diren zenbait ekintza:

- Kasuan kasuko eragile eta taldeak identifikatzea jarduera esparruka eta horren arabera ikastaroen eskaintza bideratzea.
- Etorkinentzako harrera plan bat burutu. Kanpotik datozen umeen hizkuntza, kultura, ohiturak, gizarteratze arazoei irtenbidea emateko, ez bakarrik eskola mailan, baita orokorrean ere.
- Ikasleen euskara sendotzeko ekintzak jartzea abian, euskaltegiekin batera: topaguneak, jardunaldiak, udarako barnetegiak, murgiltze ekintzak...
- Hizkuntzaren kalitatearen inguruko hausnarketa (Erdarakadak saihesteko zer egin?)
- Gazteentzat egoera ez formaletan erabili dezaketen hiztegiaren lanketa
- Herritarren artean euskara ikastearen garrantziaz sentsibilizatzeko eta herrian euskara ikasteko dauden aukeren berri ematea. Sentsibilizazio kanpainak
- Atalase-maila (5. eta 6. mailak) gaindituta daukatenentzako eskaintza egokitu
- Alfabetatze ikastaroak indartzea eta jarduera esparruka identifikatutako taldeei eskaintzea. Sentsibilizazio kanpaina potentea.

- Euskara ikasten ari direnak euskara erabiltzera motibatzea. Euskara erabiltzeko foroak, guneak, ekintzak sortzea eta antolatzea. Euskaldun zahar eta berriak batzen dituen proiektu bat landu (Gau baten inguruan solasaldiak antolatu, museoetara bisitak, egun osorako irteerak, afariak.....). Nolanahi ere ondo aztertu behar da, euskaraz ikasten ari direnen helburuak, asmoak, nahiak, gogoak,.... zeintzuk diren. Nor hori egiteko euskara ikasten ari den jendea baino? Askotan eta, hor egiten dugu kale, geuk proposatzen ditugu helburuak.... eta porrot egiten dugu.



## Euskararen erabilera

Aretxabaletan, euskara erabiltzeko esparruak eratzeko beharra ageri da, eta ona litzateke Udalaren gidaritzapean, udalerriko Euskararen Aholku Batzordearen bitartez, aisia, kirola, katekesia eta kulturgintza esparruetan euskararen presentzia bermatzea eta besterik gabe euskara erabiltzeko aukerak eskaintzea. Ekintza horiek dibertsifikatu beharko lirateke, adin-tarte ezberdinetako euskaldunengana iristeko.

Aisialdia eta kirola direla eta, horretan diharduten taldeen eta elkarten jarduerak koordinatzeko modua egin dezake Udalak. Euskarazko ekintzen aldirokotasuna bermatzeaz gain, esparru horietan adin-tarte eta interes ezberdinei erantzuteko ahalegina egin dezake, eta Udalaren menpeko aisialdi eta kultur guneetan euskarazko saioak eskaini. Esparru horietan denetan haurrentzako eta gazteentzako eskaintzari erreparatu beharko litzaioke, bereziki. Besteak beste, haientzako dauden euskarazko produktuen eta zerbitzuen gaineko informazioa helarazi daiteke, eta horretarako, egun eskueran dauden jokoen, liburuen, komikien, bideoen edota teknologia berrietan oinarritutako produktuen katalogoa osa daiteke. Horrela, euskarazko produktuen eta zerbitzuen kontsumoa areagotuko litzateke. Ekintza hauez gain, beste ekintza batzuk ere proposatzen ditugu aisia eta kirol esparruetan euskara indartzeko:

- Jolasaren ildoko ekintzak euskaraz antolatzea: 12-14;14-16;16-18 gazteei; eta guraso, irakasle, begiraleei..... zuzenduta.
- Tailer-ikastaroak euskaraz antolatzea: 12-14;14-16;1-18
- Hitzaldiak eta emanaldiak euskaraz antolatzea:12-14;14-16;16-18
- Aisi-kirol begiraleak, eta kirol entrenatzaileak euskaraz prestatzea. 16-18
- Euskaraz dakiten aisialdirako eta kiroletarako begiraleen lan poltsa osatzea16-18
- Aisialdiko elkarten barne funtzionamenduan euskararen erabilera areagotzen laguntzea. Elkarlana.
- Jendaurreko kultur- eta kirol-jardueretan euskararen presentzia bermatzeko hizkuntza irizpideak ezartzea, eta sentsibilizazio ekintza zehatzak egitea, erabilera handitzeko.
- Kirol taldeek erabiltzen duten materiala euskaraz izateko laguntzak bideratzea eta material horiek kirol-klub eta elkarteetara helaraztea.

Teknologia berriak ezin albo batera utzi, eta komenigarria da esparru hori gogoan izatea. Honen harira, Aretxabaletako elkarteek eta herritarrek interneten duten edo jartzekoa duten informazioa euskaraz ere egoteko laguntza tekniko eta diruzkoa eskaini dezake Udalak. Udal zentroetan teknologia berrietan oinarritutako euskarazko produktu eta zerbitzuak eskaini ditzake Udalak eta euskara lantzeko tresnen zabalkundea egin herritarren artean, batez ere, gazteen artean, beraiek baitira, produktu horien erabiltzailerik sutsuenak.

- Internet bidez ematen den informazioa euskaraz emateko dirulaguntza eskaintzea.
- KZGunea euskalduntzea: hizkuntza irizpideak zehaztu eta aplikatzea, bai kanpora begira, bai barrura begira.

Administrazioari dagokionez, 2001eko urriaren 15ean onartu zuen euskara-plana. Derrigortasun-indizea eta hizkuntza-eskakizunen betetze-mailari dagokionez, Udalak lanpostuen %86,11ri ezarri die derrigortasuna. Derrigortasun-data duten langileen

artean, bostetik hiruk egiaztatu dute hizkuntza-eskakizuna. Hizkuntza-eskakizunen betetze-maila areagotze aldera lanean segi behar du Udalak. Bereziki, izendatutako atal elebidunetan lan-hizkuntza euskara izan dadin urratsak ematea garrantzizkoa da. Administrazioaren jardunari buruz ondoko ekintzak eraman daitezke aurrera:

- ❑ Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko plana garatzea.
- ❑ Euskara Zerbitzuaren betebeharren arabera normalizatzailearen beharrak definitzea, HPSrekin batera.
- ❑ Euskara Batzordea osatzea, herriko sektore esanguratsuenekin.
- ❑ Euskararen Udal Ordenantza, berrikusi, eta egokitzea.
- ❑ Udalarekiko harremanean euskara hutsezko komunikazio-harremanak eratzea, herritarren eta udalaren artekoak (euskara hutsezko harreman nahi duten herritarren zentsua) eta erakundeen artekoak (hitzarmengintza).
- ❑ Euskara Zerbitzua sendotzea, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean.
- ❑ Gaur egun, Aretxabaletan bi enpresa ari dira euskara-plana garatzen. Aretxabaletan industriak duen garrantzia kontutan hartuta (bost langiletatik hiru industrian ari dira) ona litzateke enpresa gehiagotan euskara-plana egokitzea eta aurrera eramatea. Enpresa munduan euskara indartzeko proposatzen ditugun beste zenbait ekintza:
  - ❑ Enpresetan barne eta kanpo plangintzak egiteko laguntza eskaintzea
  - ❑ Bertako enpresen artean Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak eskaintzen dituzten laguntzak ezagutaraztea eta eskaera egiteko laguntza eskaintzea
  - ❑ Arloko elkarteekin harremanetan jartzea eta euskararen inguruko proposamen orokor bat egitea
  - ❑ Lehen hitza euskaraz izan dadin laguntzea
  - ❑ Sektoretako arduradunei (dendariei, tabernariei,...) euskara erabiltzearen abantailak ikustaraztea. Orain arte egindakoaren hausnarketa eta balorazioa egitea.
  - ❑ Eraginkorrek diren establezimenduak identifikatzea eta mikroplangintzak egitea
  - ❑ Eusko Jaurlaritzak edota Foru Aldundiak enpresetan euskararen erabilera areagotzeko programetan parte hartzen duten enpresei laguntza teknikoa edo diruzkoa ematea, ezarrita dauden irizpideekin bat etorriz
  - ❑ Merkataritzan eta ostalaritzan euskararen erabilera areagotzeko begira neurriak definitzea.
  - ❑ Udalaz gaindiko, merkataritza eta ostalaritza alorreko eskualdeko erakundeekin elkarlana, euskararen erabilera areagotzeko begira.
  - ❑ Herritarrek finantza-etxeekin euskarazko harremana izan dezaten bideak bultzatzea.: Zerga aitortpena euskaraz egitera bultzatu, txartela euskaraz aktibatu.....
  - ❑ Hizkuntzan eragin handia du oraindik elizaren jardunak. Are handiagoa dotriña klaseetara doazen haur eta gazteengan beraz,
  - ❑ Parroki taldeak, egin dezakeen eskaintza orotan, hizkuntza irizpideak ezarriko direla ziurtatzea.

Aretxabaletan garrantzia handia dauka musika eskolak beraz:

- Herriko haur guztiek euskaraz dakitela kontuan hartuz, euskarazko eskaintza ziurtatzeko bitartekoak jartzea.
- Euskara hutsezko jarduna lortzeko beharrezko laguntza eskaintzea: formakuntza, material didaktikoa.....

### Euskararen elikadura

Goienkaria ostiralero banatzen da Aretxabaletako etxeetan. Honez gain, Aretxabaletako biztanleek bere programazio osoa euskaraz eskaintzen duen Goitb (Goiena Telebista) ere ikus dezakete. Aspaldian bailaran euskarazko komunikabideen esparruan aurrera-pausu ugari eman dira. Azkena, Goiena.net deritzona, bailarako albiste, kontakizun, agenda eta abar euskara hutsean eta herriz herri sailkatuta Interneten abiatu den proiektua.

Udalaren esku dago euskarazko komunikabideei laguntzea eta komunikabideok bultzatzea, eta horretarako ona litzateke laguntzak ematerakoan irizpide objektiboak finkatzea: autofinantzaketa, proiektuaren bideragarritasuna, maiztasuna eta hartzailearen tipologia, besteak beste. Alor honetan, beharrezkoa izango litzateke finantziazio-irizpideak adostea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin.

Aurrera eraman daitezkeen beste zenbait ekintza alor honetan:

- Haur eta gazteentzako euskarazko eskaintza sustatzea.
- Udalak herri edo eskualde mailako komunikabideetan tokian tokiko euskalkiaren erabilera bultzatzea, bereziki haurren arloari dagokionean.
- Komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide egitea.
- Euskarazko prentsa idatziaren arloan irakur zaletasuna sustatzeko saioak.
- Euskarazko prentsa lehentasunezkoa izendatu Udalak gizarteratu beharrekoen zabalpenean

Corpus-Plangintza eta euskararen kalitateari dagokionez

- Bertako euskalkia jaso eta sozializatzea.
- Hizkuntza zerbitzuaren aholkularitza bultzatu, herriko erakundeen hizkuntza-ekoizpenaren zuzenketan.
- Euskal abizenak euskal grafiaz jartzeko sentiberatze saioak burutzea.
- Erregistratzen diren izen berriak zuzen idaztea.

Kulturgintzaren arloan, bestalde, kultur ekintzak antola daitezke orain arte bezala, euskarazko kultur ekoizpenak herritarrengana iritsi daitezken aldiro-aldiro. Hauek dira proposatzen ditugun zenbait ekintza:

- Udalaren menpeko kultur gunetan euskarazko materialak eguneratuta izatea eta herritarren eskueran ipintzea.
- Euskara hutsezko kultur eskaintza egitasmoa antolatu, gazteentzako bereziki erakargarria izango dena, eta Udaleko beste sailekin eta herriko gizarte taldeekin elkarlanean bideratuko litzatekeena.
- Herriko kultur eta kirol elkarten euskalduntzea eragin hitzarmengintzaren bidez.
- Euskarazko irakur eta idatz zaletasuna sustatu, baita euskarazko musika zaletasuna ere.
- Udalak diruz lagundutako udalerriko elkarte eta erakunde ezberdinek egin dezaketen kultur- kirol eskaintzan hizkuntza irizpideak ezarri.
- Inguruko herriekin eskualdeko kultur zirkuituak antolatzea.
- Euskarazko kultur plangintza diseinatzea, aldizkakotasuna bermatzeari begira.
- Herriko festetan eta kultur ekitaldi nagusietan euskararen presentzia bermatzea. Jaietan euskaraz parte hartzera bultzatzen duten aktibitateak bultzatu.
- Udaletako azpiegiturak euskal kulturgintzan dabilzan taldeen esku jartzea.
- Euskal kultur produkzioa zabaltzea eta ezagutaraztea.

Beharrezkoa litzateke, azkenik, corpus plangintza alorrean, merkataritza gunetako hizkuntza-paisaian (dendetan, tabernetan, akademietan eta abarretan) euskararen presentzia txukuntzea eta areagotzea. Baita ere, toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisaia, Euskaltzaindiarekin bat etorritik, normalizatzea. Azkenik, hizkuntza ondarea gordetzeko eta zabaltzeko ekintzetarako laguntza eskaini dezake Udalak.

## EUSKARAREN AURREKONTUA

2002an, Aretxabaletako Udalak euskara sustatzeko 276.040 € bideratu zituen, hau da, urteko aurrekontuaren %3,61.

2003an, Aretxabaletako Udalak euskara sustatzeko 275.627,48 € bideratu zituen, hau da, urteko aurrekontuaren % 3,45.

2004an, Aretxabaletako Udalak euskara sustatzeko 236.676,78 € bideratu ditu, hau da, urteko aurrekontuaren % 3,28.

Kontzeptuka aztertuz gero, euskara-aurrekontuaren zatirik handiena euskalduntze alfabetatzean erabili zen, ondoren komunikabideetan eta elkarteei emandako diru-laguntzetan, pertsonal-gastuetan eta azkenik beste zenbait kontzeptutan, geratzen zen aurrekontuaren zatia.

Ona litzateke Udalak euskararen sustapenerako bideratzen duen aurrekontua aztertuko balu, herrian euskara biziberritzeko nahikoa duen edo gehitu beharko litzatekeen erabakitzeko. Ikustekoa da, halaber, euskara-aurrekontuak diagnosiak agerrarazten dituen beharrei ea behar bezala erantzuten dien, eta aurrekontuaren hazkundera izanez gero, zein helburutarako erabil daitekeen kopuru gehigarri hori.

## GIZA BALIABIDEAK

Gaur egun, Aretxabaletako Euskara Zerbitzuan bi langilek dihardute. Bata, euskara teknikari eta itzultzaile eta bestea, hizkuntza-normalkuntzarako teknikari.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskara-zerbitzuen dimentsionamendurako azterketa egin berri du eta horren arabera, Aretxabaleta bezalako udalerrri batean euskararen normalizazioan bi langile aritu beharko lirateke, gutxienez: hizkuntza normalkuntzarako teknikari bat eta itzultzaile bat.

## **GLOSARIOA: erabilitako aldagaien eta kontzeptuen definizioa** **Glosario: definición de las variables y conceptos empleados**

### ***HIZKUNTZA-GAITASUNA (HPS / VPL)<sup>2</sup>***

Hizkuntza (euskara) zenbateraino menperatzen den ezagutzeko, oinarrizko hizkuntz trebetasunak (ulertu, hitz egin, irakurri eta idatzi) gurutzatzen dituen tipologia.

Tipología que combina los distintos niveles de las destrezas lingüísticas básicas (entender, hablar, leer y escribir) para establecer una tipología del dominio de la lengua (euskera).

#### ***Euskaldunak / Euskaldunes***

Gutxienez euskaraz “ondo” ulertu eta hitz egiten dutenak.  
Aquellas personas que al menos entienden y hablan “bien” el euskera.

#### ***Elebidun hartzaileak / Bilingües pasivos (HPS / VPL)***

Euskaraz “nekez” hitz egin edo, hitz egin ez arren, “ondo” ulertu edo irakurtzen dutenak.

Aquellas personas que hablan el euskera “con dificultad” o que, no hablándolo, lo entienden o lo leen “bien”.

#### ***Erdaldun elebakarrak / Erdaldunes monolingües (HPS / VPL)***

Euskaraz batere ulertu eta hitz egiten ez duten pertsonak.  
Personas que no hablan ni entienden nada el euskera.

### ***ETXEKO HIZKUNTZA / LENGUA HABLADA EN CASA***

Etxean maizen hitz egiten den hizkuntza.  
Es la lengua que se habla con mayor frecuencia dentro del domicilio.

---

<sup>2</sup> Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak finkatutako sailkapena  
Clasificación establecida por la Viceconsejería de Política Lingüística

## **HIZKUNTZA-BILAKAERAREN TIPOLOGIA /TIPOLOGIA DE MOVILIDAD LINGÜÍSTICA**

Biztanleriaren hizkuntza-bilakaera zer-nolakoa izan den aztertzeko ama-hizkuntzaren eta hizkuntza-gaitasunaren gurutzapenean oinarritutako tipologia (HPS). Gurutzapen horretatik eratorritako kategoriak 15 badira ere, azterketa egiteko 7tan bildu dira.

Es una tipología establecida en base al cruce de las variables de Lengua materna y Competencia lingüística (VPL) con el que se trata de analizar la evolución lingüística de los individuos. Las categorías resultantes del cruce son 15, aunque para su análisis se han reagrupado en 7.

### ***Euskaldun zaharrak / Vascófonos***

Ama-hizkuntza euskara izan eta euskaraz “ondo” ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.

Aquellas personas cuya lengua materna ha sido el euskera y que lo entienden y lo hablan “bien”.

### ***Jatorrizko elebidunak / Bilingües de origen***

Ama-hizkuntza euskara eta gaztelania izan eta euskaraz “ondo” ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.

Aquellas personas cuya lengua materna ha sido el euskera y el castellano y que entienden y hablan “bien” el euskera.

### ***Partzialki erdaldunduak / Parcialmente castellanizados***

Ama-hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz “nekez” hitz egin edo, hitz egiten ez badute, “ondo” ulertu eta irakurtzen duten pertsonak.

Aquellas personas cuya lengua materna ha sido el euskera o el castellano y que hablan el euskera “con dificultad” o que, no hablándolo, lo entienden o lo leen “bien”.

### ***Gutziz erdaldunduak / Totalmente castellanizados***

Ama-hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz ez hitz egin, eta “ondo” ez ulertu eta ez irakurri egiten ez duten pertsonak.

Aquellas personas cuya lengua materna ha sido el castellano o el castellano y que no hablan nada el euskera y no lo entienden ni lo leen “bien”.

### ***Euskaldun berriak / Neovascófonos***

Ama-hizkuntza gaztelania izanik, edo euskara ez den beste hizkuntza bat, “ondo” ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.

Aquellas personas cuya lengua materna ha sido el castellano u otra distinta del euskera y que entienden y hablan “bien” el euskera.

***Partzialki euskaldun berriak / Neovascófonos parciales***

Ama-hizkuntza gaztelania izanik, edo euskara ez den beste hizkuntza bat, euskaraz “nekez” hitz egin edo, hitz egiten ez badute ere, “ondo” ulertu eta irakurtzen duten pertsonak.

Aquellas personas cuya lengua materna ha sido el castellano u otra distinta del euskera y que hablan el euskera “con dificultad” o que, no hablándolo, lo entienden o lo leen “bien”.

***Erdaldun zaharrak / Castellánófonos***

Ama-hizkuntza gaztelania izanik, edo euskara ez den beste hizkuntza bat, ez hitz egin, ez “ondo” ulertu eta ez irakurri egiten ez duten pertsonak.

Aquellas personas cuya lengua materna ha sido el castellano u otra distinta del euskera y que no lo hablan nada y no lo entienden ni lo leen “bien”.